

## 7.-FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresa ondo funtziona dezan beharrezkoak izango ditugun aktibo nagusiak deskribatzen dira. Funtsezko baliabideen bitartez, balorezko proposamena garatu, bezeroengana iritsi, bezeroekiko harremana mantendu eta, azkenik diru sarrerak lortu ahal izango ditu gure enpresak.

Enpresa baten funtsezko baliabideak ondorengo kategorian sailkatu daitezke:

1. **Baliabide fisikoak:** produktuak, fabrikatzeko instalazioak, bulegoak, ibilgailuak, materialak, sistema informatikoak, salmenta puntuak eta banaketa sareak. Externalizazioa funtsezko baliabide bat kanpoko enpresa batek gara dezake kostuak merkatzeko edo enpresa baten esfortzuak balio erantsi handiagoa eskain dezakeen beste arlo batzuetan kontzentratzeko eta kostuak ahal eta gehien murriztea da bere helburua. Enpresa baten funtsezko baliabideak ordeztuak izan ahal behar dira enpresak bere jarduerari eutsi nahi badio. Adibidez, arrantzaren arloan diharduen enpresa baten kasuan, arrain-sardak berriz jartzeko denbora eman behar du, bestela, iraungitze-data izango luke negozio horrek. Funtsezko baliabideak proiektu baten funtsa dira; beraz, ezin izan beharko lukete ordeztuak izan. Ordezgarriak izatekotan, edo ez ziren benetan funtsezko baliabideak edo negozio-eredua aldatu egin da.

2. **Baliabide intelektualak edo baliabide ukiezinak:** marka, jabeko ezagutza, patenteak, egile eskubideak, elkarteak eta bezeroen datu baseak egongo lirateke kategoria honen barruan

3. **Giza- baliabideak:** enpresa edo erakunde batean, lan egiten duten pertsonak osatzen dituzte. Ildo horretatik esan beharra dago enpresa guztietan garrantzitsuak diren arren, sormena, ezagutza edota gaitasun komertziala oinarritzat duten, enpresetan bereziki benetan funtsezkoak direla.

-Leire, gure enpresaren abokatua da eta gure enpresarekin arazoak badaude berak eramaten du arazoa aurrera.

-Irati, enpresaren ekonomialaria da eta kontuak eramaten ditu gure enpresan ez egoteko diru arazoak.

-Ainara, enpresaren ekonomialaria da ere, baina bera espezializatzen da gehiago bezeroekiko harremanean.

-Iñigo, bezeroekin harremanetan jartzen da eta iragarkiak egiten ditu gure produktuak bezeroek ezagutzeko.

-Paula, dirua bilatuko du finantzatzeko, hau da, finantzazio-iturri batzuen artean hoberena edo merkeena aukeratuko du. Beste aldetik, diru horrekin inbertsio hoberena bilatuko du gure enpresa edota produktua aurrera eramateko.

4. **Finantza- baliabideak:** ezinbestekoak direla eskudirua edo linea-kreditu izateko, materiala erosteko, soldatak ordaintzeko ( bestelako negozioak egiteko ala negozioak zabaltzeko).

Kontuan hartu behar duguna da baliabideen eraginkortasuna, horiek ondo gestionatzen datza.

Hau guztia kontuan hartuta, gure enpresan aztertuko ditugu zer baliabide mota dauden eta haien barruan nork egiten duen bere lana, horrela gure enpresa osatuko ahal izango dugu.

- **Baliabide fisikoak:** lokal bat (produktua saltzeko), ordenagailua, telefonoa, liburuak, aulkiak, mahaiak eta apalategiak. Produktu hauek eta gauza hauek, hau da, liburuak eta horrelakoak **alokailu???** batean egongo dira. **Alokailuan** arazoak eta produktuari buruz hitz egingo da. **(Uste dut “lokal” jartzen baduzuela hobeto geratuko dela)**
- **Baliabide intelektualak eta giza baliabideak:** taldeak izan zuen sormena, eta bakoitzari dagokion baliabide intelektualak:
  - **Ainara** → zuzendaritza eta komunikazioa. (adb: berak lankideak eramango edo esango dizkie aholkuak lan egiteko eta komunikazioan bera oso berbatia delako eta konbentzitzeko ahalmena duelako)
  - **Leire** → motibazioa (adb: arazoak badaude edo gure enpresa ez badu arrakasta, bera motibatu gaitu aurrera jarraitzea, azkenean lortuko dugu).
  - **Iraiti** → kontuak eramaten ditu (enpresak dituen galerak eta irabaziak kalkulatzeko ditu eta begiratzen du ea zer irtenbide duen gauzak txarto badoaz)
  - **Paula** → proaktibitatea (arazo bat badago, hau da, enpresa osoan berak ahalmena du arazo horri konponbidea aurkitzeko)
  - **Iñigo**→ kreatibitatea eta diseinua. Izan ere, guztiek bezeroekin eta laguntza eskaini ahal diote. **(ez dut ulertzen azken esaldi honetan zer esan nahi duzen)**
- **Finantza-baliabideak:** beren aurrezkiak, irabazten dutenarengatik bere soldata lortuko dute. Haien aurrezkiak, hau da, 50.000€ minimo **(jarri dut beste dokumentu batean gehiegi dela nire ustez)** jartzen dute, produktuan inbertitzeko, lokala alokatzeko eta lokalak dituen gauzak erosteko.

